

OTSAILEKO NABARMENAK

Laz
kao



HERRITARRON PARTEHARTZEA

Aldundiaren ekimenez Lazkaoko Udalak antolatu duen ikastaroan izan gara, langileen arduradunetz gain, EH Bilduko eta PNVko bina zinegotzi. Partehartze maila herritarrei iritzia eskatzeko ariketa soiletatik hasi eta erabakia benetan haien esku uzteraino zabal daiteke. **Ezagutzen aurrera** egin dugu; **aplikatzeko aukerak mila** ditugu eskura... Orain udal gobernuak **borondate politikoan aurrera egitea besterik ez zaigu falta!**

1

MARTXOAK 8: GUK GEHIAGO NAHI GENUEN

EAJk lau haizetara zabaldua izango du Lazkaoko Udalak Martxoaren 8aren gainean aho batez onartu duen udal-adierazpena. EHBilduk ere aurkeztu zuen berea. **Aho batez onartu genuena osatu eta herrian hartu beharreko neurriak zehaztu baino ez zuten egiten gureak.** Seina izan zen botazioaren emaitza; gu alde eta EAJ aurka. Alkatearen bozaren balio bikoitzak erabaki zuen mozioa baztertea.

2



ANBULATORIOA: OSAKIDETZA LAZKAON

Lazkaoko osasun zentroko LAUarekin (Lehen Arretako Unitateburu), Mari Jose Osés andrearekin egon gara, eta **Osakidetzaren egoera** orokorra (mediku falta, zerbitzuak pribatizatze joera, baliabide eskasia...), nahiz Lazkaokoa (anbulatorio berria) errepasatu ditugu. Martxoan argitaratuko dugu erreportaje osoa.

3



PALESTINA

Lazkaoko EHBilduk bat egiten du **Gernika-Palestina deialdi herritarra**rekin. Hemen duzue haren bidez diru-ekarpenak egiteko era:

Transferentzia: ES05 3035 0083 24 0830140015 (Laboral Kutxa)
BIZUM: Zure banketxearen aplikazioaren bitartez EMAN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu edo erabili 08736 kodea

4

GOGOAN HARTU MARTXOKO BI DATA HAUEK

- **Martxoak 8 emakumeen nazioarteko eguna.** 18:30: Manifestazioa.
- **19:15: Ekitaldi nagusia.** Ondoren: Zatekeen erromeria. (Lazkaoko Talde Feministak eta Goirriko Koordinadora Feministak antolatuta)
- **Martxoak 23 Korrika Lazkaon.** Goizeko **10:45ean pasatuko da** euskararen aldeko ekimena herritik. Lazkaoko Korrika Batzordeak egitarau zabala prestatu du ostiralerako (martxoak 22) eta larunbaterako (martxoak 23).

5

<https://ehbildu.eus/herriak/lazkao/albisteak>



ehbildu lazkao

